

# “ZENTENARIOA: HERRI BAT, BANDA BAT”

Josu Mitxelena



“El Centenario, pasa-calle” (1881)  
José Erciti y Segarra. Argazkia: ERESBIL.

Asko dira bai, eta ugariak oso, gure herrian Zentenarioa eta madalen jaien hasieraren inguruan sortutako teoriak.

**H**onako artikuluak, apaltasun osoz, “mito eta helezahar” bilakatutako teoriok argitzea beste helbururik ez du. Beti ere, Udal Artxiboan, Eresbil Euskal Musikaren Artxiboan eta EMKE Errenteriako Musika Kultur Elkarteko artxiboan bildutako datu eta dokumentuak oinarri.

Beste hainbatetan gertatu antzera, mahai baten inguruan hasitako solasaldia dugu artikulu honen sorburua. Aipatu solasaldian, madalen jaiak hasteko astebete eskasera, musika zaletu eta lagun batek galdetu zidan:

**- Zer dira madalenak musika bandarentzat?**

Eta nik erantzun:

**- Galdera beste modu honetan egiteari egokiago deritzot: Zer da musika banda madalenezat?**

Musika bandaren 154 urteko historia-ibilbide luzea eta bereziki herriarekin duen atxikipena dela medio, egun ezagutzen ditugun madalen jaien osaketan musika banda eragile nagusi eta erreferente bilakatu da.

Galdera hark eragin zuen gai hauek argitu beharra: gure Zentenarioaren datu historikoak, musika bandak madalen jaietan izan duen eta duen eragina, eta jaien hasiera (txupinazoa) Viteri eskolatik (bandaren egoitza zaharretik) Herriko enparantzara lekualdatzea.

Has gaitezen lehenik, gure Zentenario kuttunarekin, Jose Erviti y Segarra maisuak konposatutako pieza adierazgarriarekin, gure madalen jaien ikur zalantza izpirik gabea denarekin.

1881. urtea genuen, Madrilgo Universidad Centralek, Calderón de la Barca idazlearen heriotzaren berrehungarren urteurrena ospatzeko egitarauan, prosa, bertso eta musika lan originalak saritzeko lehiaketa zabaldu zuen.

Aipatu lehiaketak bere oinarrietako lehen puntuan jasotzen zuen: “un pasa-calle para los instrumentos que se usan generalmente en las estudiantinas, a saber: flautas, violines, guitarras, bandurrias y panderetas”. Urte hartako maiatzean bertan, sari banaketari ekiten zaio, Alfonso XII.a erregea epaimahaiburu duela. Bertan ziren ere, infantak, Madrilgo gobernadore José Alvarez de Toledo y Acuña, eta Universidad Centraleko klaustro osoa. Erregeak sariak banatu zituen, eta zilarrezko domina egokitu zitzaion José Erviti y Segarra maisuaren “El Centenario, pasa-calle” konposizioari.

Hantxe jaio zen gure Zentenarioaren lehen bertsioa, jatorrizkoa, biolin, gitarra, bandurria eta panderetarentzat idatzitakoa. Urte batzuk geroago, egile berak musika bandarako egokitu zuen Zentenarioa El Pentagrama argialetxerako. Aipatu argialetxean, Erviti autoreak partitura orokorrean bildu zituen (eta hori ez zen ohikoa garai hartan) musika bandarentzako hainbat lan, hasiera batean horietako asko beste instrumentu taldeentzat idatzitakoak, eta norberak musika bandarentzat egokitutakoak. Agian, eta haxe da nire iritzia, Erviti bere lan asko musika bandarentzat egokitu zituen oharturik XIX. mendeko bigarren zatian indartsu ari zirela sortzen musika bandak eta etorkizunera begira gure kale eta herrietan musika hedatu eta zabaltze

arlotan garrantzia izango zutela. Era honetan, Erviti bere hainbat lan egokitu zituen eta horrela banda erreperitorioa aberastu.

### **Baina nork eta noiz txertatu zuen gure herri erreperitorioan Zentenarioa?**

1920. urtean musika bandak, Jose Mari Iraola zuzendari, urtero bezala, uztailearen 21ean, madalen jaien kalejira herrikoari hasiera eman zion, baina doinu berri batez: “El Centenario” izeneko doinuez. Garai hartako ohiturari jarraiki, udal garbiketa zerbitzuko langile batek suziria bota ostean, kalejira herriko kaleetan zehar abiatu zen madalen jaiari hasiera herrikoia emanaz. Viteri eskola zaharrean musika bandak zuen egoitzatik irten eta jaiari hasiera emateko irrikaz bertan bildutako jendetzaren babesaz abiatu zen, arratsalde herriko musika banda, Igeldoko seme Jose Maria Iraolaren zuzendaritzapean.

“El Centenario” konposizioak, lehen unetik jaso zuen herritarron onespina, oso gustukoa zuten, eta urteen poderioz madalenetako doinu-ikur bilakatu zen.

Gure partitura kuttunaren konposizio eta txertatze arloak argituta, artikulua bigarren zatira gatozen.

### **Madalen jaiak musika bandaren egoitzatik abiatzen baziren, Viteri eskola zaharretik, noiz, nork eta zergatik eraman zuen Zentenarioa Herriko enparantzara?**

Noiz? Hirurogeiko hamarkadan, 1967. urtean, Udalak argitaratutako Oarso boletinean irakur daitekeen bezala: “Alas siete de la tarde. Desde el balcón principal



Txupinazoa Viteri Eskola - 1965.

del Ayuntamiento, en la Plaza del General Mola, será disparado el primer cohete, con alegre volteo de campanas, señalará el principio de las Fiestas, y la Banda de Música de la Asociación de Cultura Musical Renteriana interpretará el clásico pasodoble EL CENTENARIO. Seguidamente...”. Edota Rafa Bandresek berak 1967ko efemerideetan jaso bezala: “A las 19 horas por primera vez, novedad este año, se lanzó el cohete desde el Balcón del Ayuntamiento”. Orduko alkate Luis Barinaga Hernandezi, diotenez Iruñeko jaien hasierako txupinazoak txundituta, madalen jaien abiapuntua Herriko enparantzara lekualdatzea otu zitzaion. Hala, madalen jaien hasierako suziria udaletxeko balkoi luzetik bota eta musika bandak, udaletxeko arkupe aurrean, balkoi luze azpian kokatuta, herriaren aurrean “El Centenario” indartsu jo zuen.

Urteetan aurrera, 80ko hamarkada korapilatsuan, Herriko enparantzara Udaletxeko balkoi luze azpian jotzea ezinezkoa suertatu zen. Musika banda, enparantzara berez zegokion lekua galtzen ari zela oharturik, eta hainbat kokapen saiatu ostean, hala nola Kapitain Enea kalea eta Erdiko kalea, 1995ean Musika Kultur Elkarteko Batzarrak, bere lehendakariaren proposamenaz, musika banda egun ezagutzen dugun kokapenera eramatea

erabaki zuen, Andre Mariaren Jasokundearen parrokiako mailadira, alegia. Kokapen pribilegiatua: musika banda Herriko enparantzara txertatzen du bete-betean, udaletxearen eta bandaren ondoan bildutako herri osoaren aurrez aurre.

Jaien hasierako ordutegiari dagokionez, datu bitxia da Madalenak arratsaldez hasia musika bandari zor diogula. Gure musikoak, egungoak bezalaxe amateurrak ziren, eta musika bandara lanaldia amaitu eta gero iristen ziren. Jaiei hasiera eguerdian ematea ezinezkoa suertatuko litzateke eta horrexegatik, urte haietako ohiturari jarraiki, gure herriko madalen jaiak egun, arratsaldeko zazpiretan abiatzen dira (inguruotako herri gehienetan ez bezala).

Laburbilduz eta artikulu hasieran aipatu galderari erantzunaz, madalenak musika banda dira eta musika banda madalenak dira. Musika bandak gure jaiei hasiera eta amaiera ematen die “El Centenario” konposizioaren doinuaz eta herriaren eta bere musika bandaren arteko sinbiosia lortzen du. Herri baten nortasuna bere kulturara datza, eta herriko musika banda kulturaren adierazlea da. Herri Bat, Banda Bat!!!



Zentenarioa, Herriko Enparantzara, 1995.  
Argazkia: J. Hospitaler.